



HONDARRIBIA

D. L. S. 5. 122/86 Inp. R. Fernández / Añara 21. 1986

34. zenbakia

UDAL EUSKARA - KONTSEILUA

60 pta.

1989. azaroa



Urriaren
14-15
Octobre

JESUS ZUBELDIA

Joan den hilabetearen, urriaren 14 eta 15ean, izan zen Ziburun eta Donibane Lohizunen berebiziko omenaldia azkeneko berrogeitamaru urtetan Ziburun bizi den hondamidiar bateri.

Edadekoek ezagutuko badute ere, gazteagoentzat ez da hain ezaguna izango Jesus Zubeldia. Orain ere gerra madarikatuak ederki bete du bere lana. Bifon gerrari buelta ematen dion (eta nola eman, gainera) pertsonarik badela maisuki erakusten digu Jesusake.

Jesusi adjetiboak jartzen hasita lista luzea ateratzen da: txistularia, kantaria, koruzendaria, dantzaria, kirolaria, langilea, eragilea..., hala ere, bere hirurogeitamaru urte horietan izen bat gailentzen da denen artean: bizia. Bizia baita, dudarik gabe, gizon honek duena bere baitan. Eta bizi horren eraginez heldu dire bere ekintza guztiak.

(6. orrialdera)

TXINGUDIKO UREN MANKOMUNITATEA

Ez omen du kolorerik, ez usainik, ez gustorik. Hala ere mundu honetan dugu gauzarik ugariena, erabiliena eta beharrezkoena omen da ura.

Ezinbestekoa dugu egaria berdintzeko, hain listatzeko, muturra edo kotxea garbitzeko, baita edozein energia mota lortzeko ere, nuklearra barne.

Arrainak ez bagara ere urez inguratutik bizi gara: ura itsasoan, ura zeruan, ura lur-rean.

Aurtun, aspaldiko partez, zerukoak huts egin digu. Ohi ez bezalako lehorte zitala nekariak sumatu zuten lehendabizi baina gerorago hiritarrek ere jasan behar izan dituzte estuasunak eta ur-mozketa larriak. Galdetu, bestela, Gasteizko, Bilbo, Laudio edota Eibarko lagunei zer moduz doakien aurtengo udazken idorra. Añarben ere ez da ur eskasirik baina bertako urak hartzten dituzten Donostiarrek ere hobe izan dute, bada-espada ere, urak irakitea edan baino lehen eta, bada espada ere, libia tanta batzuk (on the rocks) botatzeko ur trago arrearen bixigami. Zorionez, jarriberria duten 1.826 milioitako depuragailuak konpondu omen die arazoak.


Hondarrribian ezagutu izan ditugu, hain aspaldi ez delarik, oraingoak baino garai beltzagoak eta katazkatuagoak. Hala eta guztiz, Hondarrribian ere ura dugu udazken

honetako albiste; eta ez urri dagoelako, alderantziz baizik. Izan ere, itxura guztien arabera datorren urtearen hasieratik bere-rik, ibiltzen hasiko omen da Txingudiko Uren Mankomunitatea. Hau dela eta, Hondarrribiko Udala behar hainbat erabaki hartzen ari da urteko azken hilabete hauetan.

Izan ere, uraren arazoari erantzuteko orain arte herri bakoitza nahikoa izan baldin bada, hemendik aurrera ezinezko gertatuko da hori, are gutxiago osasunaren aldetik Europako legediak eskatzen dituen baldintzak beteko badira. Zoritzarrez, kontaminazioa Gipuzkoako mendi zulo eta tontor guztietara iritsia da. Mendi-mendian dauden iturburuak ere kutsatuta daude gauro egunean. Ondorioz, herriari ezin zaio potabilizadoretik igaro ez den urik eskaini.

Horrelako gastuak, berriz, udal bakar batek bere gain ezin hartu dituelarik beste aukerarik ez zaio gelditzen besteekin elkartzea baino. Añarbeko Mankomunitatean, adibidez, Donostia, Errenteria, Pasaia, Lasarte, Oiartzun, Lezo, Usturbi, Urnieta eta Astigarraga daude. Txingudikoan, Irun eta Hondarribia egongo gara.

Txingudiko Mankomunitateak Lesakako San Antonen izango du urtegia. Oiartzundik zoazela, Aritxulegiko tunela pasa eta berehala, Aiako Harrien bizkarrean dagoen sakongune zabal batean, azpiko argazkian ditzuna, hain zuzen ere.



1.987ko maiatzaren 7an Hondarribiko eta Irungo Udalek Mankomunitatearen estatutuen aurreproiektua onartu zuten. Horren arabera udal biak partaide izango dira ur zerbitzu osoan eta bakarrean. Hala ere, gauzak aski geldirik egon dira azken bi urteotan. Atzerapenaren arrazioak batzuk izan dira. Bat, Diputazioak bilatze horretan egin zuen proposamenaren azterketa.

Diputazioak uraren arazoaren handitasuna eta larritasuna gogoan harturik konsorzio edo partzuergo bat egitea proposatu zuen, Gipuzkoā guztia hartuko zukeen, bertan Deba, Oria, Urola, Añarbe eta Txin-

San Antongo urtegia egina dago. MO-PUK egin du. Urak ekartzea eta potabilizadorea ere Estatuak ordainduko ditu, potabilizadorea bakarrik 700 milioi kostatuko delarik. Bitartean kontentzioso bat dago hor erabaki zail...

Mankomunitatea aurrera eramateko, ordea, beste arazo batzuk ere konpondu behar dira falta diren hilabete hauetan. Armando Rojo enpresak egin duen balorazioa lerro hauek idazten ditugunean onartu gabe dago oraindik. Lehen zenbakiek 2.500 milioitako kopurua botatzen zuten (hormigoizko lanak direla eta, batez ere). Hurrengo

pleno bat izango da urtariraren 8an.

Hondarribiak orain arte Goikoerrotta, Justiz-erreak, Iturriointxo, Artzu-erreak, Ezteut eta Manarranas-en hartutako urak Errandonea, Gonzaloenea eta Higuer-eko depositoiatan biltzen zituen. Mankomunitatean sartu eta potabilizadorea martxan hasita ere orain arteko instalazio hauek gorde egongo dira, zerbitzu berezi batzuetarako eta bada ezpada ere.

Irungo lehenengo depositoiak argi-ondar zentrala bat antolatzeko erabiliko dira. Hori, noski, diru-iturri gertatuko da Mankomunitatearentzat.

Dena den, Mankomunitatea ez da dirua irabazteko enpresa bat. Irabazi egiten baldin badu, irabazia ez da bi udalen artean banatuko, baizik eta tarifak merkatzeko, erreserbako fondoa osatzeko edota obra berriak egiteko erabiliko da.


Mankomunitatearen organo nagusia Asanblada izango da, hamaika zinegotzik osatuta: zazpi Irungoak eta lau Hondarribikoak. Ordezkarri horiek udal bakoitzeko Plenoak aukeratu beharko ditu, boto gehiengo absolutoa. Asanbladaren presidentea eta Mankomunitatearena bat bera izango da.

Mankomunitateko beharretan eta zortetan 80/20 proportzioa izango da, alegia, % 80 Irungo Udalarri dagokio eta % 20 Hondarribikoari. Orobat Mankomunitatea noizpait desegingo balitz ondasunen likidazioa egiterakoan.

Estatutuen arabera Mankomunitateak ez du iraupen mugarik. Berau desegiteko, berriz, aski litzateke bi udalotako batek bere gogoz eta libreki separatzea erabakitzea. Horretarako sei hilabete aurretik eman behar luke bere asmoaren berri. Baita ere, Asanbladak Mankomunitateak ez dela gauza bere helburuak betetzeko erabakiko balu ere.

Estatutook, ordea, onartu gabe daude oraindik, azaroaren 9ko Plenoan mahai gainean gelditu bait ziren. Diputazioak bizpahiru artikuluko aldatu eta gero publikizatzeko baldintzak bete gabe zeudela eta. Urtea bukatu baino lehen, beraz, ez da bilkurarik faltako gai hau dela eta. Bestela, "urte berri, urtegi berri" esaterik ez baitugu izango.

J. A. Letamendia



Goiko Errotako urtegia.

gudiko arroak sartuko zirelarik. Aukera hori aztertu zen eta Añarbekoek eta Txingudikoek hainbat puntu ez zituzten garbiergi ikusten, edo beraientzat behintzat ez horren positiboak, besteak beste, beren lanak erlito azkarragoan zihozazelako beste arrotakoak baino, tarifak askoz ere garestiagoak aterako zitzaizkiela, e.a. Txingudikoak, gainera, beste lauekin batean galdugao ibiltzeko ere bildur ziren. Dena den, Diputazioak garbi utzi nahi izan zuen berak arazo honek ez zebilela inolako buruzagitz politikoaren bila eta bere proposamenaz probintziaren ona baizik ez zuela bilatzen.

Duda-muda eta elkarrizketa aldi hori itxi ondoan Irun eta Hondarribiko udalek duela bi urte urratutako bideari ekin diote berriro. Txingudiko Mankomunitatea datorren urtearen hasieratik errealtate bihurtzeko asmoz.

pausoa Mankomunitatearen gestioa antolatzea izango da: alderdi legalak eta fiskalak, gestioaren eta gobernuaren organigrama antolatzea, informatika sistema, dokumentazioa, e.a.

Hondarribiko udalak bere aldetik hau dena aurrera eramateko beharrezkoak diren bi erabaki hartu zituen urriaren 3ko Plenoan: batetik uraren prezioak egokitzea, Hondarribian eta Irunen berdinak izan beharko bait dute, eta bestetik, ANSArekin (Agua del Norte, S.A. enpresarekin) orain arte zeukan kontratua bukatutzat ematea. Partidu guztiek onartu zuten erabakia HB izan ezik, koalizio honek bi urteko bederen uraren municipalizazioa eskatzen bait du, herriarentzat mesedegarri eta errentagarri izango delakoan. Bi urte honien buruan balantze bat egingo litzateke. Hori aztertze

OHARRAK

TXANDAKO BOTIKAK

Azaroak	13 - 19: Iraola
	20 - 26: Erauskin
	27 - Abenduak 3: Mayi
Abenduak	4 - 10: Iraola
	11 - 17: Erauskin
	18 - 24: Mayi

TXANDAKO OKINDEGIAK

Azaroak	19: Arratibel
	26: Garmendia
Abenduak	3: Martinez
	6: Arratibel
	8: Garmendia
	10: Martinez
	17: Arratibel
	24: Garmendia

EUSKARAZKO MEZAK

Egunero arratsaldeko 7etan Portuan.

LARUNBATETAN:

Arratsaldeko 6etan Portuan (haurrentzat).
7,30etan Portuan.

IGANDEETAN

Goizeko 8.30etan Betherranen,
9etan Amuten,
9.30etan Guadalupean,
11etan Portuan.

NON DIRA KARDIÑERUAK, TXOKA ETA TTARIÑAK?



Kolore haiek, hobeki nabaritzeko aukeratu bazituzten, egiazki lortu zuten beren nahia. Mikeleten jazeraz ari naiz, noski. Urruti-ara ere oso ikusterrazak ziren kapelu eta galtzak gorri bixi-bixiak, eta txaketa bere kapa tikiarekin, axula, ez argi-argia, ezta iluna ere: bien arteko axul poltita.

Lau edo bost izango ziren gehienez Hondarriban.

Bi lan hauetan gogoratzen ditut bereziki mikelteak: Aurrezki Kutxan (Hiru Bire-ko naximentua jartzen den tokian), eta herri ondoko zelai basterretan, legetik kanpo ibiltzen ziren txori harrapatzaile eta ihixtari bihurrien bila. Azken hauetako bat dugu gaur gogoratzen dudana mikelteak.

Garai batean Portu aldearen lekuko argi-garri gelditzen diren etxe txiki bakan horietako batean bizi zen; etxe txikiak baina oso ondo pentsatuak. Madalen gaineko arrokak babestutako zolan eta harrizko mugarik gabeko itsas haserreetatik urruti xamar. Bai polita izango zela gure portua eguraldi ederretan, hondarrak eta belardiak elkar besarkatzen zutelarik...! Ez zait harritzen Alvaro Quintero anaien geroxeago esanda-koeekin: "Qué pena! ¡Ya no nos interesa este Fuerterrabia moderno...". Zer esango ote zuten gaur? Baina, tira, oraindik ere herri polifonikotako batean bizi gara eta segi dezagun gure mikeltearekin.

Garai hartako gehientxoan bezala, goiztarra zen gure gizona. Bere baratze, txerri eta oiloak gobernatu ondoren, egunero goizeko zazpitan, egurrezko eskalaproiak jantzita, kiloko ogiaren bila joaten zen dendara (hauek sei t'erdia ezkeretik irekiak egoten bait ziren). Gosaldu ondoren Mikeletez jantzi eta oso gizon guapua genuen. Udaberriko txori umatze sasoiari amorratu egiten zen zelai basterrean sareko txori tranpak aurkitzen zituenean baina tranpa jartzailerik ez. Tranpajate guztiak bere etxe ondoan bizi

zen gizon bati kontatzen zizkion. Honek, berri-iz, pazientzia eta ixiltasun handienekin entzuten zizkion marmar guztiak ezpainetan xixtu ixilean doinu bat jotzen zuenarik, axolarik gabe bezala. Baina, bai zera! lagun honek bere modura ere oso maite zituen txoriak: etxe sarrerako ate inguru guzia eta soto luzea txori kaiolez beteak bait zituen. Hauek sortzen zuten kantu eta dantzek gure mikeltearen errabia berpizten zuten eta borizki esaten zion lagunari:

— Aizak hi, biñon nondik ttuk hik hainbeste txori?

Eta lagunak:

— Txori hok, denak erregalatuak.

— Erregalatuak? Etziatek, ba, neri egiten askorik eta intzak labore esatia zefek erregalatzen tiken, zerri horiek bertan txetzeko.

— Nik esan zuri zefek? Ez haatik! Aski duzu zuk billatzia, hortako pagatzen dizute. Eztuk txarra!

Ez zen konturatzen gijazo mikelteak, baina bazkalondoko goiztarren kuluxka egiteko gelako leiho hegaliak ixten zituen bezain laster, auzoko laguna, sare tranpak eta atximarta guztiak harturik, antziak eta baziak Astobideko aldaia gora (nahiz eta adin haundia izan zangoak oso arinak bait zituen) txoriak harrapatzen.

Garai hartan etxe gehienetan bazen txoria, eta katua ere bai. Txori mota gehienek kardiñerua eta ttarina ziren. Oso bakan kus-

ten zen kanarioa. Mutli koskorrak oso laioak ziren txoriak tiragomaz hiltzen, ea zeinek zuen punteria hobea, beste helbururik gabe. Baserritarrek, berriz, mutli koskor guztiak bezala, kapeluearekin ibiltzen ziren eta honen azpian ekartzen zuten txoria bizi-rik; ez dakidana da, ordea, nola harrapatzen zizuten. Etxeko anaien entzundako gertaera bat aipatuko dut.

Ziotenez, baserritar bat oso berandu etorri omen zen eskolara txoriak harrapatzea-gatik eta, jakina, maisuak galdetu zion:

— Dónde has estado hasta ahora?

Eta mutliak:

— Zera..., txoriya bixto... arriya tiraro... buztana faltado... tiempo ha pasado...

Dudarik ez da. Baserritar hura bertsolari hobea zen ihixtaria baino.

Pixka bat serio pentsatzen jartu eta galdara sortzen zaigu: non dira lehen ikusten genituen hegai luxeko eñara andanak?

Diotenez, gaur ikusten ditugunak ipur-txoriak omen dira, eta horiek ere gutxiago. Eta kardiñerua, txoka eta ttarinak, mendez mendez Euskal herriaren lagunak? Jabetzen ote gara itzulgabeko galera honetaz? Bizitzaren arnas partaide ziren. Pixkana pixkana, ez ote gara Michelet idazleak dioena egiaztatzen ari? "Lurra txoririk gabe, basamortua".

Hori bizitz amasaren aldetik. Baina, ez al zara behin ere egunsentian milagarroen amodiozko kantak entzuten gelditu?

Zure buruhauste, kezka, bizitza presatu honen zamarekin zoazelarik, goi-goiko ar-daxkatik txantxangorri edo xaxi-txoria entzuten baduzu, geldi zaitez, une batzuek bedere, adi, harri duran ateak irekita. Txoriak bere txikitasunean badu sentimen lokurtuak esnatu eta une pozgarri eta paketsuak biziarazteko ahalmena.

Baina horretarako, gelditu eta entzun egin behar...



Kardiñerua.


"JE NE COMPRENDS PAS"...

Lehorte handi-bero-zahar honetan murgilduta bizi gara.

Halere, Hondarribiak izan du burua Jaizkibel mendilepoetako euriurak bildu eta gordetzeko. Zorte handia. Zortea baino, aurrizkuste ona esatea hobe. Ez dugu oraindik eskasiarik nozitu, eta euria jaitsiko al da Euskal Herriko eta haruntzagokoak diren lurrak ere bedekatzeko.

Bataio horren zai gaude denok.

Baina ez naiz ur eskasiaz hitzegiteko asmoarekin hasi. Frantsesak ditut buruan.



bikote bat, herenegun goizean Butron pasealekuan korkoin mordo bati begira zeudela entzun nizkien:

"Zein arrain multzo ederrari!, 'mon chéri', esan zion hirurogeibat urteko andere apain-finak betaurreko beltzak zeramazkin gizonari.

"Egia diozu, ikusgarria!", esan zion honak.

Dena frantses ederrean, noski.

Hondarribiko korkoinak hor zebiltzen multzoka, hara eta honera, astindu batzu emanez, ohi duten bezala; denak batera mugitzen ziren, armadako ariketetan an bira, tximistak jota bezala.

Bikote frantsesa, hariturik!

"Zergatik ez ote dira Frantzia hain ugari ibiltzen"...

"Ez dakit", erantzun zion gizonak, "hemengo arrainak izango dira horrela ikusiak eta".

"Hemengoak?... Arrainak ez dute Patriarik, gizona!

"Ez dakit ba"...

"Nola izango dute Aberriarik zentzu-bururik ez duten animaliek?"

Gizona isilik geratu zen.

Ni ondoan, kainabela luzez zizare-beita urrun bota berria zuen arrantzaleari begira...

"Hara", esan zuen andreak bapatean, "hemen begien aurrean dituen arrainei jaramonik egin gabe, ikusten ez duen arrainen bila botatzen du arrantzale honek amua..., alferrik, seguraski... 'Je ne comprends pas!'... Ez dut konprenitzen!"...

Arrantzaleak ere ez zuen frantsesik ulertu.

Isildu ziren bi arrotzak, orain gizonak

ere izango dira orduan"...

"Ongi esana"...

Gizonak buruarekin, baietz.

"Aizu", esan zion andreak, bapatean esnatu balitzan, "eta orduan gurea den gutia espainiar horiena ere izango da..., eta?"

"Noski".

"Tour Eiffel ere bai?"

Gizonak, buruz, baietz...

"Eta Paris?"...

"Baita"...

"Nola liteke?"

"Ba, halaxe da..."

"Eta herri txiki honetako arrain hauen truke emango diegu geuk Eiffel dorrea eta Paris?!"

Gizonak farrari eman zion, umorea gatzem zitzaion oraindik:

"Noski, Gisele, noski"...

"Niri ez dit horrek batera graziairik egiten..."

"Ba hasi zaitez far egiten ikasten..."

"Nik ezin dut hori inolatan ere konprenitu!"

Eta abiatu zen espigoi aldera, haserre... Gizona, atzetik, argitasun batzu eman nahian.

Baina andreak ezin zuen merkatrue hori ulertu, berean zihoin: "Je ne comprends pas!!"...

Eta Hondarribiko korkoinak bitartean bere armadako ariketetan, jo eta ke muskuoak egiten.

Martin Ugalde

deskantsuan utzi zuen kanabera luzearen puntari begira. Eta gero betaurreko eta bisera beltzak buruan zituen gizonak hitzegi zuen berriz, korkoini begira:

"Hau dena laster aldatuko da, Europa osatzen denean."

"Arrazoi duzu".

"Bai, arrain multzo eder horiek gureak



"KAUDAN, KAUDAN... DUENAK EZ DUENARI EMAN"

Mugikaren hitzegian, gaztelarazko 'ma-droño' euskaraz esateko hitz hauek alpatzen dira: gurbix, kulubiz, buruduz eta kurki zuhaitzaz ari garenean eta uki, garau-gorri, gurbiz-garau, garagorri, ukil eta aragorri fruituaz ari garenean.

Gure herrian 'kaudana' deitzen diogu. Arrainen izenekin gertatzen den bezala, gure herriko lexikoa eta euskaraz hitzegiten den beste zenbait lekukoaren artean desberdintasun handiak daude.

Kaudana (arbutus unedo) itsasertean jaiotzen den basa-zuhaikha da.

Kai Berriaren inguruan, Ramon Iribarren Pasealekutik Farolako bidea bitarteko labarrean asko daude. Zuhaitza honek, ostu berde bizia eta iraunkorra du eta urte sasoi honetan laranja kolorezko fruituak apaintzen da, bi zentimetro inguruko bola zimurtsuak dira eta laranja txikiak dirudite, baina zimurdura horiek, marrubien antza haundiagoa dute.

Goxoak dira, baina ez dira gehiegi jan behar, buruko mina egin dezaketelako eta ume batek, neurrigabeko gozozakekierak bultzatuta mozor ederra harrapa dezake. Kaudanaren garauak, umotzen denean, bere pisuaren erdia alkohola du.

Agian horregatik erabiltzen izango da gehienbat pattarra eta beste edariak egiteko.

Kaudana mende honen hasieran, leku-ko ohiturei lotuta egon zen. Santu guztien egunean (Azaroaren 1ean) ume taldeak etxetik etxe ibiltzen ziren honela kantatuz:

"Kaudan, kaudan...
Duenak ez duenari eman,
Bestela, burutik betti,
Garroliak eman."

Honelako mehatxu gogorrak entzutean atsek iruki eta sagarrak eta fruitulehorrak ematen zizkieten.


Jai horren mantentzaile eskuzabalene-tako bat Magdalena Arizpe izan zen.

San Nikolas Kaleko bere Jauregia joan ziren mutikoak, bait zekiten berak edo bere zerbitzariek intxaur eta urrez betetako saskiak gainetik behera hustuko zizkiela eta hauek pozez eta atseginaz hartzen zituzten. Kaudana alpatzen bazen ere, ez zen fruitu hori oparitzen, azken urteetan behintzat kantuan bakarrik agertzen zen.

Gure idiosinkrasia aberasten duten beste ohitura asko (batatietan txanponak botatzekoa etab.) bezala hau ere desagertu egin zen.

Ez ote genuke berreskuratu behar, gure nortasuna zatika gaitzen ez joateko beder-
te?

Juan Jose Lapitz



DEMOGRAFIA

JAIOETZAK ABUZTUA

- 16an: IRATI Blanco Indoi
Gurasok: Felipe eta Miren
23an: AITOR Personat Elorriaga
Gurasok: Jose Antonio eta M.^a Amada
26an: JOANA Agirre Bandres
Gurasok: Jacinto eta M.^a Rufina
30ean: INAKI Martin Herrera
Gurasok: Santiago eta Cristina

IRAILA

- 12an: MAITE Arribasbarrena Guirao
Gurasok: Florentino eta M.^a Teresa
21ean: NAGORE Izagire Peignon
Gurasok: Fermín eta Ana Isabel
25ean: JOKIN Zebeno Laboa
Gurasok: Jose Ignacio eta M.^a Milagros

URRIA

- 4an: LEIRE Suntsundegi Izarbal
Gurasok: Carlos eta M.^a Asunción
7an: IKER Zugarramendi Olariaga
Gurasok: Angel M.^a eta Idola
9an: JUNE Edoanen Fernandez
Gurasok: Alejandro eta M.^a Begoña
18an: JESSICA Muñoz Martin
Gurasok: Fernando eta M.^a Ines
19an: MIRIAM Gonzalez Ingoin
Gurasok: Francisco eta M.^a Begoña
21ean: MIKEL Lopez Gonzalez
Gurasok: Lucas eta Montserrat
23an: MAIALEN Mendikute Goikotxea
Gurasok: Rafael eta M.^a Carmen

- 24ean: IRATI Jauregi De Gregorio
Gurasok: Santiago eta M.^a Carmen

AZAROA

- 3an: AMAIA Torres Piñero
Gurasok: Guillermo eta M.^a Asunción
6an: ITZIAR Ingoin Anzias
Gurasok: Jose Antonio eta Miren Josune

EZKONTZAK

UZTAILA

- 22an: Juan Arza Arretxea, Hondarribikoa
eta M.^a Jesus Gonzalez Aseginolaza Hondarribikoa

ABUZTUA

- 12an: Jose Angel Rivas Encinas, Irungoa
eta M.^a Soledad Solamilla Garcia, Hondarribikoa

IRAILA

- 9an: Juan Jose Toledo Elizazu, Irungoa
eta M.^a Carmen Azkue Kanpandegi, Hondarribikoa
15ean: Ignacio-Agustín Asumendi Garcia,
Hondarribikoa eta M.^a Fatima Guruzeta Prego, Hondarribikoa
16an: Francisco Javier Morle Sanchez,
Irungoa eta M.^a Begoña Elxaburu Azaldegi, Hondarribikoa
16an: Jose Manuel Arribasbarrena Dorronsoro,
Irungoa eta M.^a Tatiana Sagarratza Oñaltz, Hondarribikoa
30ean: Alberto Lasa Ansias, Hondarribikoa
eta Ruth Maria Josefa Carrillo Velez, Hondarribikoa

URRIA

- 7an: Jose M.^a Galarza Errazkin, Hondarribikoa
eta M.^a Pilar Orbeago Castro, Donostiakoa
13an: Jose Miguel Iparaguirre Amzabalaga,
Hondarribikoa eta M.^a Junkal Elxebeste Olazola, Irungoa
14ean: Jesus Gonzalez Genua, Hondarribikoa
eta M.^a Cruz Salaberria Zeb-

- rio, Hondarribikoa
16an: Patricia Anabolaza Goikotxea, Irungoa
eta Margarita Genua Errazkin, Hondarribikoa

- 20an: Jose M.^a Garcia Martinez, Hondarribikoa
eta M.^a del Mar Sanchez Alvarez, Pasaiakoa

- 21ean: Joaquin Ibargoin Olazabal, Irungoa
eta M.^a Aranzazu Larretxea Petrikorena, Hondarribikoa

- 28an: Pedro Luis Aikain Amunarriz, Hondarribikoa
eta M.^a Elena Retenaga Goienetxea, Irungoa

- 28an: Jose Manuel Ezeiza Albistur, Hondarribikoa
eta M.^a Luisa Garcia Sanchez, Hondarribikoa

- 28an: Juan Jose Arribasbarrena Ameta,
Hondarribikoa eta Elisabet Manizator Legorburu, Pasaiakoa

- 28an: Jose Gabriel Aramburu Vazquez,
Irungoa eta M.^a Mercedes Martin Tenorio, Hondarribikoa

- 28an: Miguel Orbea Araneji, Hondarribikoa
eta Nerea Aramburu Enparan, Hondarribikoa

AZAROA

- 3an: Jose Jaime Ortuzar Guillamon,
Hondarribikoa eta M.^a Teresa Cruzado Berenetxea, Hondarribikoa

- 4ean: Jesus M.^a Tel Sanchez, Irungoa
eta Pilar Soler Macias, Hondarribikoa

- 4ean: Juan Canales Busquet, Bilbokoa
eta Elisa Lopez Plaza, Hondarribikoa

HERIOTZAK

IRAILA

- 6an: Leandro Elxebeste Ezeiza 74 urtekoa,
Elvanagosa Kalea 5.
13an: Eugenio Vito Sorondo, Vista Eder Etxea.
17an: Salvador Martinez Lekuona 83 urtekoa,
Mourlane Mixelena, Beti Alai Etxea.
17an: Sabino Perez Sorzabalbere
Juan Julian Juanaberra Francesena, Santiago Kalea.

- 19an: Francisca Sagarazu Ugarte 88 urtekoa,
Egun-on Etxea.
19an: Rafael Ordoñez Indoi 65 urtekoa,
Itas-Arri Kalea 2.
26an: Primitiva Matxain Perez 82 urtekoa,
Soroeta Berri 5.

URRIA

- 2an: Felisa Gonzalez Leturia 84 urtekoa,
San Gabriel Egoitza.
3an: M.^a Aranzazu Gezalza Solaberrieta,
31 urtekoa.
Jabier Ugarte Kalea.
4ean: Manuel Agirre Sarasola,
Francisco Enea.
5ean: Felix Ezponda Agirre,
Sorondo Etxea.

- 10ean: Cristóbal Ezeiza Olaskoaga 92 urtekoa,
Elxebeste Baseria.
10ean: Amalia Olazabal Armandiz
14ean: Rosario Gonzalez Zorita 87 urtekoa,
Gizakioa Plaza.

- 14ean: Agustín Agirre Ormazabal 46 urtekoa,
Belentxo Etxea.
14ean: Reme Petri de Ory 90 urtekoa,
Kai Gain Etxea.

- 15ean: Juan Jose Garmendia Sorondo 70 urtekoa,
Beko Borda Baseria.
20an: Margarita Aginagale Sorondo 10 urtekoa.

- 22an: Pascual Kalea, Oroitz-Bide Etxea.
22an: Jose Luemasa Joven.
Aranizalea Auzoa.

- 28an: Candelaria Olasagasti Bengoitxea
Amute Auzoa, Jesus Mari Etxea.

AZAROA

- 9an: M.^a Asunción Urbia Telletxea,
San Pedro Kalea 43.

- 11ean: M.^a Angeles Lizargarate Arburu.

(lehen orrialdetik)

JESUS ZUBELDIA

Hona bere Ziburuko etxean, omenaldia biño egun pare bat lehenxago esan zizkigunetatik ale batzuek, irakurtzea merezi dutela esatea sobran dago...



Kenzpeko pilota jokua inauguratu zeneko argazkia. Bitoriano Agirrek 'Hondarribia'ri utzia. Izenak ere esan dizkigu baina zerrenda luzeegia da orangoan emateko. Zubeldia, Iñetxa duena duzu. Bere eskuineko txapeladuna, Bitoriano bera.

—H: Hondarrribian jaioa...

—J.Z.: Bai, Portuan. Bizi nintzen Zuloagari, laugarren zenbakian, orduan hala zen, orain ez dakit non den, lehenbiziko bizitzan.

—H: Bertan jaioa...

—J.Z.: Bai, aita irundarra zen, eta ama Errederikoa. Ama etorri zen, ahizpa bat bazuen Hondarrribian ezkondua, zaharragoa, eta honara etorri zen. Gure aitak ireki zuen denda bat zapatak saltzeko eta zapatak antolatzeko. Bertan ezagutu eta ezkondu ziren, eta bederatzi haur izan zituzten. Bi haurretan hil ziren.

—H: Eskola kontuak: Nora joaten zinezten?

—J.Z.: Ni hasi nintzen monjetan, tiki-tikitarik, *Hijas del la Cruzen*. Gero, koxkortzean pasatu ginen D. Francisco Lizarazu, maisu kojua. Kantari han ikasi genuen, zertik harek ematen kantatzen *dos por una dos*... Harek besterik ere egiten zuen: hortz gutxiak ateratzen zituen. Haur batek hortz bat mugitzen zuenean: *D. Francisco, hortz bat mugitzen zaio horrerik! Hau, gogorxko duzu oraindik, ikusiko dugu egun batzuen buruan...* eta, gutxienez uste zuenean, *tak!*

Gero, Don Jose Etzaniz donostiarra ekarri zuten, D. Francisco Sagarzazu alkate zelarik. Portuan ireki zuten eskola, orain Arrantzale Zaharren etxea den horretan.

Don Jose Etzanizek Portua altxatu zuen, zertik arrantzaleen haurrak hankutsik ibiltzen ziren eta... oso eskola-emaile praktikoa zen. Eta gainera jarri zuen, denak, ba-

kotxak bere etxetik toalla edo trapua ekarri behar zuen, bere numeruakin, denak hantetan alpagatuta, gero mantala beltza, denak berdin izateko, ez aberats eta ez pobre.

Eta rebista pasatzen zuen. Garbitasuna sartu zuen Portuan.

Problemak ere egiten zituen arrantzako problemak, ximpeak biño praktikoa, biziko problemak. Espiritua irekitzen zuen problema hoiakin. Behin, oroitzen naiz, badakizu Primo de Riveraren diktadura zen, eta inspektore bat etorri zen. *¡Aquí se habla el vasco! Eta maisuak: Yo hablo en vasco cuando veo que los otros no comprenden.* Inspektoreak, berriz: *¡Yo sé que usted les*

habla en vasco! Orduan, maisuak haurrei galdetu: *¿Aquí hablo en vasco? Eta haurrak: ¡Noooo!* Haurrak behin bedere maisuaren alde! Ta han joan zen gure inspektorea.

¡Jatorra zen gizon hori, asko zor diogu horrerik.

MUSIKA

—H: Musikarekin ere baduzu erlazioa tikitatik...

—J.Z.: Bai, gu sortzez portuarrak ginen, biñon tipleak ginen. Elizan kantatzen genuen. Don Anjel Telleriaren musika ikas-tera Kalera joaten ginen, gu ginen portuarrak-kaletarrak.

Eskolatik ateratzen ginen lauetan, eta jostetara joaten ginen. Gure aitak musika bazakien, xistulana zen eta berak aginduta soffeora joaten ginen egun guziz Don Anjel Telleriaren gana. Ta ez ginen konten, jakina, lagunak pilotan eta, eta gu soffeora. Orduan ez ginen konten baina geroztik esaten dutena da: *mila esker aitari obligatu gaituela denbora haietan eskolara joaten*. Haurretan ez da ikusten momentuko gauza baizik ez da begiratzen ere etorritzen, baina gero... kaniketan ona izango nintzen orain baina, zer probetxo!

—H: Musika Bandan ere tikitatik hasiko zinen...

—J.Z.: Bai, hamabi urtetako Bandan nintzen.

—H: Eta Txistulari Banda?

—J.Z.: Geroago, hamabost urtetan, silbotaekin sartu nintzen. Azpiazuk jotzen zuen lehena. Albetok bigarrena eta silbota ez zuen inork jotzen.

—H: Eta atabaleroa?



Furia Roja (1934). Zutik, ezkerretik: Pepito Ardaiz, irundar bat, Pedro Goikoetxea, Pako Luna, Pako Etxeberria, Zubeldia, Kandido Ostolaza eta Jose Etxebeste. Belaunikatun, ezkerretik ezeguzun bat, Diego, Nazario Errazkin eta Melchor Olasoaga.

—J.Z.: Zelestino, eternel, lau generazio pasa ttu harek, gure aitarekin jotzen zuen, gurekin jotzen zuen, eta geroztik jo zuen. Fandangoa, arin-arin eta birbilketa ederki jotzen zituen, baina baldin bazen kontzietotan jotzeko Dionisio Zabalak jotzen zuen, oso ona zen.

—H.: Orduan zu silbotearekin hasi zinen.

—J.Z.: —Ta gero Azpiakuz utzitzen gintuen eta hasiak ginen pixkat Alberto eta biek elkarrekin jotzen.

—H.: Orduan askotan jotzen zenuten?

—J.Z.: Igande guziz arratsaldean jotzen ginen landangoak eta. Bandak berriz hamabost guziz. Neguan Kale Nagusian eta udan Alamedan. Ta gero xistua jotzen genuen Karnabaletan, Kale Nagusian arko azpitan.

FUTBOLA

—H.: Alde batetik lana, beste aldetik musika, futbolearen erliza omen zinen. Afizioa izango zenuen, eta ona zinela ere aritu dugu.

—J.Z.: Ni oso gustora ibiltzen zinen. Ona izango nintzen, zertik Goizeko izaratik hautatu ninduten Furia Rojara, eta Furia Rojatik hautatu ninduten gero Juventudera. Extremo jokatzeko nuen, ezker-eskuin.

—H.: Nola zen ekipoen kontu hori: Goizeko izarra, Furia Roja...

—J.Z.: Goizeko izarra zen Portuan. Biltzen ginen Amunarriz eta inguruan, eta kai Zaharraren eta Hermandadearen tarte-aren bada kale bat Farola aldera, eta hor artitzen ginen baloika.

Ta beti erre ibiltzen ginen, zertik aguazila, (pordi, maiz pasatzen zen handik eta ez gintuen uzten.

Gero, Furia Roja. Orduan zen Kalean tiki eta haundien arteko ekipoa. Eta ezagunak bagenituen eta han sartu nintzen. Poliki ibiltzen ginen. Han baziren portuarrak eta kalearrak, hasiak ginen elkarretara biltzen. Gero, hortik Juventudera. Juventud serioagoa zen. Puntala zen gure terrenoa, tribunak ere naturalak ziren, eta jendearentzat oso egokia zen. Han partido gaitzak egiten genituen. Nere orotzapenez partido bat bakar galdu dugu han, beste guzikiak irabazi. Jende asko etortzen zen.

KERIZPE

—H.: Zuek gazteak zinetela KERIZPEK lan haundia omen zuen...

—J.Z.: Keriazpen Don Manuel Elgorriagarekin asko albatu zen herriaren nibel kulturala: igande arratsalde guziz konferentzia izaten zen, teatroak ere egiten zituen, eta jokoak. Orain dela berrogeitamabost urte langileen haurrak nun ikasiko zuten domino, ping-pong, edo teatro egiten. Ajedrez ere ikasi genuen. Orduan ez zen horrelakorik izaten langileen, arrantzaleen etxeetan.

Ni han ibili nintzen hamabi urtetatik etorri arte.

GERRA

—H.: Gerra izan zenean zuek nola etorri



1936ko irailaren 4a. Errefuxiatuak Hendaiaiko hondartzan. Irun, su eta ke.

zineten Ziburura, nola izan zen kontu hori?

—J.Z.: Gerra hasi zenean, ez ginen ohartzen gerra zer zen, gure adinean batez ere. Hasi ziren jendea mobilizatzen, irundarrak batez ere.

Guk aritzen genuen taka-taka-taka-taka ari zirela.

Gero hasi ziren menditik Guadalupera kainoia, eta gero hasi ziren barkuetatik kainoia tiratzen Guadalupera. Eta, zer gauza, gu joaten ginen Farolara begiratzen barkuak, ikusten genuen su haundi bat, eta bagenekien zer heldu zen, gordetzen ginen, eta gero aritzen genituen sinuak.

Orduan Amabirjina jaitsi zuten Herriko elizara. han ez zagola ongi eta. Herriko elizan egiten zen beti nobena, eta buirullaren laua zen, goizeko sei l'erditan zen meza, eta atera ginen beti bezala. Eta zortziak aldera, ez dakit xuxen, laisterka, oihuka etorri zen bat, frentea hautsi zutela, heldu zirela.

Ez genuen bertzera ateratzerik, edo bertan gelditu edo honera etorri.

Oiarzun hartu zuten, Donostiko bidea ebaki zuten, ta jende guziki-guzia battelekotatik ta denok Ondarraitzura, Hendaia. Ez pasaporterik, eta deusik gabe, hainbeste jende etorri zen.

Ta Hondarribian sartu zirenean, Kaizaharretik militar bat etortzeko, bestela bizi guzian hemen ginela, neretzat egia zen, askorentzat ere bai.

Haiek harrilu ziren herria hutsa atzeman zuten, hutsa. Eta holaxe goizean ez genekigun ezer eta bi-hiru orenen buruko, honea.

Gero Ziburura etorri ginen. Hemen, aitarren lehengusu bat Ziburun bizi zen eta harek garaje batean sartu gintuen ahal bezala: koltxoi zaharrak eta jergoi zaharrak, hantxe ginen garaje batean hogei lagun.

Ona zena garai hartan zera zen: arraia asko saltzen zen hemen, eta baziren arrai-fabrikak, eta Britainiak ekartzen zituzten emazteak lanera. Orduan, nere bi arrebak hasi ziren fabrikari lanean. Ni, berriz, sila batean jarri erremienta batzuekin zapatak

antolatzen. Eta hola pixkat-pixkat hatsa pita bat hartu genuen.

—H.: Lan egiteko baimena edo beharko zenuten.

—J.Z.: Bai, baimena behar zen, *carta de trabajo*, eta ez zuten ematen. Hala urte batzuek bizitu ginen, baina beti ez zen posible hola bizitzea, eta jakin genuen bazela Urruñan zapalero bat, itsu-itsutua, ez zuen posible lan egitea. Harek ekartzen zigun lana, eta antolatzen genion. Eta gero pentatsu genuen, elkar aditu genuen, harek izena emango ginuela, eta guk lan egin eta zer-bait parte eman. Hala ireki genuen tailer bat eta ibili ginen urte batzutan, baina hura adinekoea zen eta hil zen, eta akaboe gure tailer-*r*! Ez genuen baimenik. Eta baimena galdutu genuen eta ez ziguten eman.

—H.: Larri ibiliko zineten...

—J.Z.: Esango dizut beste gertakari bat: Hemen etorri zen lege bat, ez dakit ze urte zen, biñon, etorri zen lege bat: *errefugiad* *tuak hemendik berrogeitazortzi oren buruko mila kilometroa*.

Zer egin behar dugu guk? Inor ezagutzen ez, zer egin ta jakin ez. Ta aingeru guardiakok, bizi guzian izan dut hori, auzapezari esan eta berak: *Joan nahi duzue edo hemen gelditu? Guk: hemen gelditu*. Eta berak: *Nik egingo dautzuet certificat de residence, hemen bizi zeratela paper bat, nik izenpetua, baina zortzi egunez ez etxetik atera*. Gu gustora. Ikusi behar zen gizon hura gure alde nondik nora. Iriskatu zen gizon hura guregaitik. Hala zortzi egun pasa ziren, eta gero ahal bezain gutxi aterlatzen ginen, eta gendarmek paperak galdetzean guk ez genuen bertzerik aterlatzen, orri hura beti. Esaten ziguten: *Hau ez da ona, behar da aldatu*. Baina gu beti paper harekin.

Gizon harek salbatu zigun, ez guri bakar-*r*a, errefugiatu asko etortzen ziren Ziburua Herriko Etxera. Hortakotz nahi nuen mintzatu, gizon hari, Abeberri izena zuen, asko zor



Zubeldia anaiak Donibaneko karrika nagusian txustuz jotzen.
Hangoa Jesus, erdikoa Anjel, Atabalari, harakin hermaniar bat.

diogu, ez bakarrik guk, errefugiatu askok. Sekretarioa ere oso ona zen, Elissalt. Bi hoiak jende asko salbatu zuten.

Behar luke, Hondarribiak ez zertik baginen denetarik, Hondarribiak egingo balu ere ez legoke gaizki, karrika bateri edo kale bateri, Gobernu euskaldunak bederen, denen izenean Donostian edo Bilbaon Abeerriren izenarekin. Hori zor diogu errefugiatuek.

Gero gizon horrek, ez zuen posible ongi finitzea, alemanek hartu zuten, Alemaniara eramanez *kampo konzentrazioa hila* da. Martir bat bezala hil behar zuen, sobera gizon, sobera justu, kuraila haundikoa zen.

—H: Aingeru guardakoak...

—J.Z.: Jinkoak haragizko aingeruak atxamaten ditu behar den tokioak, Jinkoak badaki norat igorri bere aingeruak, behar den tokira. Nik nere bizian auzi ta garbi ikusi dut hori, ezin esplikatut diren gauzak.

—H: Alde hontara etorri zinetenean txistikur ekarri zenuen?

—J.Z.: Etorri ginenean hemen bazen Alegeza izena zuen orleoi bat, Donibane eta Ziburu artean, eta euskaldun kantak eta kantatzen zituzten. Behartu ziren *Kalez kale* eta kantatzeko eta ez dakit nondik alera zuten nik jotzen nuela, eta xistua eman zidaten, ta hasi nintzen orleoi horrentzat jotzen. Denbora berean, musika banaikiela eta kantatzen hasi nintzen. Gero, berriz, anaiari erakutsi nion, harek flautina bakarrik jotzen zuen, eta biek jotzen hasi ginen. Bazen hemen hermaniar bat eta harek tanborra jotzen zuen bandan, eta hiruen arte formatu genuen xistu banda. Eta pilotako soziedade bat bada, Luzean, eta horrek galdetzen gintuen gehiena jotzeko. Horrek egiten zituen xisterako pilota partidak, bai xistera laburrean, bai xistera luzean, eta errebota ere bai. Eta jotzen genuen Donibaneko kale nagusian, Elizako kale hortan partida aurrean kalejirra bat joaz joaten ginen pilota plazara, eta gero, han, tartekka fandango bat, arin-

arin bat, pixkat animatu. Hala hasi ginen jotzen. Ez zen beste orleoirik, ez zen beste xistularirik inguru guzian.

BIXINTXO

—H: Bixintxo dantza taldea ere sortu zenuen...

—J.Z.: Bixintxo taldea? 1946an edo sortu da. Jizaren babesean sortu zen. Ziburu partea oso hotza zen euskaldun gauzentzako, hemen ez zenuen ikurrin bat ikusiko, ez dantza bat, ez xistu bat... ambientea ere hotza. Bixintxo taldea hemen oinarritu nuen. Urtero egiten da *kermesa*, biltzen da jendea, egiten dire jokuak, bazkaria eta Elizako gasto haundienak pagatzeko, Reboluzioaz geroztik apezek ez dute pagarik hemen, eta egiten da urteko kermesa. Eta neri erran ninduen ia mutiko batzuek erakutsiko nituen dantzan, jai hori pixkat bizitzeko.

Ta talde hori egin nuen, mutiko-koskor hoiakin, eta makil itiki batzuekin, eta urte batzuek pasatu ziren hola, eta gero bikarioak erran zigun: zertako ez zabaldu *pixka bat* talde hau *nextek* ere egin dezaten *zer-bait* eta? Hasi ginen neska hoiak formatzen, zabaldu genuen Bixintxo taldea, eta orain ia badira berrogeita lau urte, eta geroztik ikasi beti dantzak.

Nere ahulezia hortan da, ideia baldin badut ere obstakulo gehiago ikusten dut, sosa nondik..., gero, norbait baldin badut ondokir orduan bai, orduan lotzen naiz luze-ko, berrogei urte edo hogeitamar urte. Baina nerez uzkur naiz. Ni ez naiz ezertan aurerratu, ez futbolean, ez bestetan, beti galdetua izan naiz... *Anneko* korala da azkenekoa, orain dela hamar-hamaita urte. Bi gizon etorri zitzaizkion, nahi zutela gizon talde bat kantatzeko, eta ez zutela direktorerik, ia ez ote nuen esku hartuko. Nahiko banuen: elizako korala eskuan, eta ez erratea ere halako zerbait. *Bai* erran nuen.

—H: Horretako aurretik Elizako koralean aritzen zinen...

—J.Z.: Bai, lehenbizi kantuz, orain dela berrogeitahiru urte edo hola, eta gero, orain dela hamabost urte edo direktore.

—H: Orduan, bai elizan, *Annekin* ere bai, dantza taldearekin ere bai, lana ere bai... eta familia

—J.Z.: Familiarekin suertea isan dut. Baditut seme-alaba batzuek beti nere inguruan: dantzariak dire, kantariak dire, silbo-eta jotzen dute...

—H: Eta bilobak ere dantzariak omen dituzdu...

—J.Z.: Bai, hasiak dira. Hemen bazutuan gertatzen gera, mutilen sailoetan hiru jenerazio: igual norbait falta da ta hutsa betetzeko nik dantzatzan dut, ta grupo berean nere semea eta haren semea. Hiru jenerazio talde berean dantzan.

—H: Eta denbora nondik ateratzen duzu gauza guzti horiek egiteko?

—J.Z.: Denbora nondik ateratzen duten neronek ere ez dakit. Hori bai, nere andreaki esker gauza asko. Gero, denborarekin ikasten da lana nola egin. Bo, maiz gertatzen da badituzu lan batzuek zure gustokoak, beste batzuek ez hainbeste. Eta ordena behar duzu: zein da behar presatuena? Zure gustua utzi eta ordena. Denbora asko irabazten da.



OMENALDIA

—H: Lerrook agertzen direnarako omenaldia egina izango duzu, biñon zer esan nahi diozu jendeari?

—J.Z.: Konten izango naizela igandean hondarrabitarrek eta ziburutarrek elkarretarat bilduta ikustean, bi xoko polit horiek aspaldian dira nere bihotzean, baina tartean ez dago ez karabinerorik eta ez duanenik, amodiozko lokarria baizik.

Txomin Sagartzazu

ONDARRIBIKO ERREXINOLA

Leku goxoa bezin maitea nola den ONDARRIBIA
Añaitasun ta ere berdin da nortasunaren kabia
Egun batean xoko hortarik aize goxoaz bala
Airatu eta ziburun egindu bere pausa aldia
Geroztik gure errexinola dugu JESUS ZUBELDIA.

Ondarririk airatu ordu pausatu baitzen Ziburun
Bi kabi goxo eta mailiak ez dira elgarn urrun
Hor dauka beraz maitez hautatu xori polifonik bat lagun
Sende goxoz inguratutak ikusten ditugu
Erakutsiaz nola gintazken eskualdun ta fededun.

Zoribat talde den gaur zuri esker ibilki airoski kantuz
Zuk moldatua gaur dauzkan bozak zuzenduz bezala tantuz
Zer lanak eta buru austeak denak zure kondu artuz
Zerbeit ordaintza egin nai dugu omenaldi au moldatuz
Gaur bereziki zure omena ta nortasuna goratuz.

Gizon argia zira bai-buruz eta alaber eskuz
Gure xokoa alaitu duzu bai kantuz eta bai xistuz
Zuk dakizuna bertzeri ere agertu eta erakutz
Ahal guziaz zabaldu duzu herm maiteari buruz
Egin gaituzun ongi guziez Milaka Eskerak JESUS.

XANPUN.



OKELARI DIRU LAGUNTZAK

Lehen, orain eta ziurren gero ere, baserritarrek adi egon beharko dute ihon eskeintzen den apurra eskuratu ahal izateko, eta hala ere, komedi franko izango da bizibidea aurrera ateratzen. Horrela, Europako Ekonomi Elkarteko nekazaritza politika dela eta, azken urte hauetan gure baserrietara zenbait dirulaguntza edo subentzio iritxi izan da. Orain bitartean, batez ere, esne behiei zuzentzen zitzaizkien dirulaguntza horiek, baina orain ordea, haragiari heldu zaio txanda.

Gisa honian, gure baserritarrek, haragi-tako behi bakoitzeko 6.231.- pezeta jaso dezakete, eta era berean, ardi eta ahuntzek dirulaguntzak dauzkate. Dirudienek haragiaren produkzioa mantendu egin nahi da, zeren esne behiek jasolzen duten subentzioarekin piskarenbat jeisten hasirik baitzegoen. Hori bai, dirulaguntza hauek ematen dituzten arduradunek jakinarazi dute, eskaera bakoitza oso zorrotz begiratu-ko da inork tranparik egin ez dezan, bestela, jende dexentek bi diren tokian hiru dituela esaten omen du eta dirulaguntza gehiago jaso nahian.

Guzti horretaz informazio zuzenagoa eta zehatzagoa izan arren, interesaturik da- goen baserritar oro joan bedi ohizko eskualdeko informazio-bulegoetara. Bertan eman- go diote beharrezkoak izango dituen xehetasun guztiak.

ITSASLUR 89

Aldizkari hau argiraratzeko, jadanik pa- saturik egongo da "ITSASLUR 89" deritza-

naren V. edizioa. Ikusten denez, azoka hau urtetik-urtera garrantzi handiagoa hartzen ari da, eta bertan Euskal Herriko hainbat produkto, abere, laborantzako eta mendiko makina, haziak, ongariak, aziendak alimen- tatzeako pentsu ezberdinak, etab... luzea ikusteko aukera izango da.

Hahiz eta udazken aldera toki ezberdi- netan feria franko izan, uste dut baserritar askori ongi etor lekiokela Bilboko azokatik itzulitxo bat egitea. Esaten dutenez, Euskal Herrian egiten den azokarik inportanteneta- koa da eta Estatuan egiten direnen artean

ere, badu bere garrantzia. Eta orain, lana- ren aldetik arim antzean egoteko garaia de- nez, egun eder bat egarotzeko aukera bi- kaina egongo da. Halaber, azoka-asteak irauten duen bitartean, beste ekintza zen- bait antolatu da Bilbo aldean, hau da, Neka- zaritza eragina aztertuz, hainbat hitzaldi hain zuzen. Ikus daitekeenez, oraintxe pil- pil-lean dauden gaiak ikutuko dituzte, eta be- raz, adi egon zaitezte.

J. Bereau



"PIRU-MIRU" LEHIAKETA (II)

Aurreko deialdian, herriko jaietan ez zegoela astirik paper artean galtzeko eta, erantzule bakarra izan genuen: Imanol Garmentia Ugarte. Hamar aldaera bilatzea eskatzen genuen, eta nahiz eta aurrean zegoen danborreroaren bizarrarena aipatu ez, hamar bidali zizkigun Imanol trebeak, bihoaz, beraz, berarentzat bakarrik lehen deialdiko bost puntuak, bidali ere oso bukun eta ordenagailuz idatzirik bidali bait zizkigun ondoko erantzun hauek (segitzeko, jaietako alea begiratu beharko duzu 30. orrialdean):

1.-Satarkako murruren gainean lau pertsona daude ezkerreko irudian, eskubi-koan berriz bost.

2.-Ezkerreko irudiko neskatxari, hots, aitaren sorbaldia gainean dagoenari, mototza eta laxoa falta zaizkio.

3.-Lehendabiziko ilarako danborrerorik egokienak atabalak gurutzatuta ditu eskuineko irudian, ezkerrekoan aldiz xuxen.

4.-Lehendabiziko ilaran eta gure begietatik urrunen dagoen danborreroak antieju beltzak ditu. Beraz, eskuineko irudian eguraldi eguzkitsua dugun bitartean, ezkerrekoan lainoren bat edo bestek zerua estaltzen duela suposa dezakegu.

5.-Gure Jasokunde eta Sagarrondoko Ama Birjinaren Eliz Nagusia ez da agertzen eskuineko irudian, ezkerrekoan agertzen da.

6.-Guri begira dagoen danborrero potto-loak bibote dotorea dauka eskuineko irudian, gure ustetan ordea, hobeto dago bigotenik gabe ezkerrekoan.

7.-Lehen esan bezala eguraldi eguzkit-sua dagoenez, begiak estaltzearren txapela jaitsi du bigarren ilarako danborreroak.

8.-Zazpigarren ilarako eskubitako danborrero destixuratuak irudi bakoitzean alde desberdinerak okertzen du danborra.

9.-Irudi erdian dagoen danborrero luzeak, beroaren ondorioz, pixka bat lasatu du painelaren korapiloa eskuineko irudian.

10.-Azken diferentzia hau hirukoitz da: Alde batetik, Dolores janaridendaren gaineko leihoak agertzen dira ezkerreko irudian. Bestetik, desberdin marraztu ditu marrazkilariak Kale Nagusiko eskuinaldeko etxeak, Eta azkenik, lehen aipatutako etxeko teilatua falta da.



Bigarren deialdi honetan, neguaren aitari-
garela eta oharmentaren estomaka be-
rotzeko "letra salda" bat hartuko dugu Piru-
Miruren kontura.

"Letra Salda" honetan Hondambian oso ezagunak diren 15 deitura (apeliditu edo abi-
zen) daude. Deiturak eskuinetik ezkerre-
ra, ezkerretik eskuinera, goitik behera, behetik
gora eta zeharka ere daude idatziak. Bat-
zuk berehala aurkituko dituzu, besteak ez
horren azkar. Bost puntu emango dira ge-

hienez eta puntuok hamargarrenetik aurre-
ra kontatuko ditu Miru piru gaiztoak. Ea,
bada!

Erantzunak abenduaren 5era arte bidali
daitezke, betiko helbidera:

PIRU-MIRU lehiaketa
Euskara Kontseilua
UDALETXEA
Kale Nagusia
20280 - HONDARRIBIA

U	R	E	T	S	E	B	E	X	T	E	O
A	E	X	T	E	O	K	I	O	G	L	X
Z	K	A	X	D	E	L	K	P	A	L	N
E	S	A	G	A	R	Z	A	Z	U	E	I
L	O	I	Z	I	R	R	A	N	U	M	A
A	R	R	O	R	R	B	A	A	E	A	K
Z	O	I	N	A	A	R	B	N	I	L	L
N	N	D	O	L	E	A	E	M	I	Z	A
O	D	O	R	L	E	K	U	O	N	A	T
G	O	I	O	L	E	B	A	Z	A	M	E




HARRESIAN ZEHAR

(Ipuina)

Ez zen edozein gisatokia. Bere berrogeitamar urteetan zehar asko sufritua zen. Itsasoak esperantzak ito zizkion maiz, baina bere odolekoak berarekin eraman ere, bai-na pozak ere eman zizkion.

Lasai bizitzeko ordua iritsi zitzaion eta bere bizian zehar egitea ezinezkoak izan ziren gauza asko egingo zituelakoaren promesa egin zion bere buruari. Txominex herri bat bezala zuen gizon zaharra. Hark esandakoa begi itsuka sinesten zuen nahiz eta agureak kontatutako istorio asko harri-garri samarrak izan. Herriko armarian agertzen den itsasneska panpox haren istorioa bezala. Norik sines zezakeen hura? Beste istorio batek ordea 14 urteko mutila dudatan utzi zuen. Duda horiek argitzezko asmoa zuen eta honetarako aitona laguntza eskatu zion. Gau hartan bertan linternan hartu eta biak "Belen Viviente" delakoa ospalten den tokira bideratu ziren. Bertan, haresian zulo bat dago eta istorioak zioenez haresian barrena sartuz gero beste garri batetara ateratzen ziren. Mendez mendez eta gurasoengandik semeengana pasa zen istorio hau Pello arrantzale zaharrarengana iritsi arte. Orain jakingo zuten egia ala gezurra ote zen. Ezezaguneari murgiltzeak suposatzen zuen beldurraz, zuloan barrena sartu ziren linternan piztutik zetularik. Txomin aitonaaren atzean gordeta zegoelarik egin zituzten lehen ehun metroak. Hautsa, armiarmasareak, aberen hilen hezurak... ez zuten besterik aurkitu. Laister bidagurutzet batetara iritsi ziren.

Eskubitarra, ezkerretara, nora jo? Intuzioak gidatutik ezkerretarantz jo zuten. Ez zen hura bidean ikusiko zuten bidagurutzet bakarra, hogeit metro harago beste bat zegoen, urrunago bestea... haresi herri laberinto bat zeukan barnean. Honek ez zuten



aitona harritu, entzuna zuenez guda garaian sortuan zen bide hark, elizara, obispo plazara, haresiko beste puntuetara eta haresiaren kanpo aldera... zituen bideak. Aurrera jarraitu zuten. Zer ote zen argi haren ondoan ikusten zen bullo hura? Ezin jakin gabe geratu haraino iritsi eta gero. Hurbiltzen ziren heinean gizon itxura hartzen zuen hark. Gorputza biribildurik, kapelu gorria buruan eta ezpata gerrian zuelarik, larriki zauriturik zegoen gizona. Gure protagonista pareka ikusi zuenean, mamu bat ikusi balu bezala begiak zabaldu eta azken arnasa eman zuen. Txominex eta Pellok ezin zuten hura sinetsi baina aurrera jarraitu zuten argitasunerantz, haresitik kanpora atera arte. Kea, sua, kaino hotsak, soldaduak, zer zen hura? Guda zirudien. Non ote zegoen gure pareka?

Ez zitzaion zaila egin hura ezagutzea, Harma Enparantzaren. Ezagutu zuten bai, baina oso desberdin zegoen eta jendea ere

desberdin jantzita zegoen. Emakumeak alde batetik bestera bere umetxoekin korrika, lasto gurdia kale erdian, soldadu gazteak lurreen zaurituta. Herria bere bizia ematen ari zen guda hartan. Haresiaren kanpoaldean utzi ugari eta kainoi izugarriak ikusten ziren. Lehenak Txingudi badiaren eta gainontzeoak Santa Engrazi aldean. Noski! Frantsesen aurkako guda zen!

Txominex ikastolan ikasi berria zuen guda. Horrelako nahastearekin ez ziren gure bikote kanpotarraz konturatu. Boom! Boom! kainoiaren balak etxea bota du. Hor dator jenerala zaldi buriaren gainean: "Zuek jaso hor dagoen gizon hori eta eraman gaztelura! Gero ekin gogor gure Hondarribia defendatzeari" -Bai jauna!

Xeha xeha eginda zegoen gizon hura gazteluan, herriko andreen eskuetan laga ondoren, bere bideak bereizi zituzten aitonak eta ilobak.

Iloba gaztea zen oraindik gudan bere burua arriskatzeko, aitonaaren ametsa ordea hori zen. Gauza normalez aparte, zerbait berezia egin nahi zuen eta hori zuten bere aukera. Nahiz eta oso gaztea ez izan jaioterriagatik bizia eman nahi zuen. Eta zergatik ez? Agian bere arbasoren bat ezagutuko zuen.

Txominex ez zuen zailtasunik izan haresian zehar bueltako bidea aurkitzeko. Triste zegoen aitona laga behar izanagatik baina era berean pozik zegoen abentura hura izan zuelako. Etxera iritsi zenean ama mahala jartzen ari zen eta arreba telefonoz hitz egiten. Laister etorriko zen aita xaiatik eta alferdu egingo zuten. Non dago aitona? Galdetu zuten mahalkideek. Txominex bere istorioa kontatu zuen baina inork ez zuen sinetsi eta tristuraz betetarik joan ohera. Txomin ordea ez zegoen triste, berak aitona pozik egongo zela bait zekien.

Maite Oronoz Antxordoki

AGUR BERO BAT NERE AITONA "ALMIRANTIARI"

Nahiz eta nere aitona ez oso famatua izan, portuaren artean oso ezaguna zen.

Nik lau urte nituela nere aitona Manuel hil zen eta horregatik aitona Xalbadorren oroigarri gehienak buruan dauzkatz zuel kontatzeko.

Nere aitona, nere osaba Biltanorekin ixkirak harrapatzen joaten zen eta handik etorzerakoan gure etxean gelditzen ziren bixita moduan. Orduan, nere amak ardo goxo kopa bana ematen zien eta haiek, guk jateko, ixkira plater bat uzten zuten. Gainera, oso onak egoten ziren.


Hamabi urtetatik alardean ateratzen zen orain dela gutxi arte arrantzale zaharren konpainian.

Errege egunean, nere amona Marcela eta nere aitona bazkalitzera etxera etortzen ziren. Postre garaian, Hondarribiko kontu zaharrak kontatzen zizkiguten eta berak asmatutako bertsoak abestu: Bere bertsoetatik hoberen gogoratzen dudana hau da:

Heldu zaigu alba ederra eguzkia ere bai orain etxetik atera gara eguneko ogian bila batzuek uste dute gure uretan deus ez dagoela ez frantses uretan sartu gorrotuaren bila.

Agur nere aitona maitea.

Marcela Martinez.



UDALA

ZERGAK ETA ORDENANTZAK


Uriaren 3ko Plenoren hasieran zerga batzuen onarpena eta hauetako batzuei zegozkien ordenantzak aztertu eta erabaki zituzten udalaldeek. Horretarako uztailaren 5eko Foru Arauean oinarritu ziren. Aurka agertu zen partidu bakarra HB izan zen, baretik beren ustez horretan gertatzen den udalen autonomi-eza salatuz eta bestetik legea aztertzeko izan den denbora urriagatik.

Erabakien arabera zerga batzuek lehen bezalatsu irauten dute, hiri zergarenek, adibidez, igaz asko igo baitzen, beste batzuk IPCren arabera igoko dira, eta beste batzuk gehiago, ura eta ibilgailuen kasuan adibidez.

ESKABETXE, INDUSTRI POLIGONOA

Eskabetxe, Aireportua eta Alamedako zubiaren artean ur ondoan dagoen triangulu txikia da (13.265 m.²). Bertan bi industria egon dira aspaldi honetan: Orlando eta Manterola kontserba etxeak. Horixe dator, hain zuzen ere, Eskabetxe izena. Inguruaren ere itsasontziak konpontzeko lantegi batzuk daude. Orain arteko erabilpenaz eta ur ondoko kokapenagatik, egokia da itsasoari eta arrantzari dagozkien lantegi txikiak jartzeko. Hala ere, Plan Orokorragi leku erresidentziala izatea erabaki zuten bere garaiaren, txaletak egitekoa, alegia.

Plan Orokorra, ordea, Arau Subsidiarioen bidez aldatzen ari da orain eta honen aurrerapenean Eskabetxe eremu industrial bihurtzea proposatzen da. Proiektu hori urriaren 3ko Plenoak onartu zuen.



Anparoren etxea.

Anparoren etxea murruren gainean ageri da Biteri eskolaren parean. Lurraldeak 1.712 m.² ditu. Etxe ederra da baina azken urteetako utzikieriaz egoera txarrean dago. Etxeak 150 m² hartzen ditu, bi piso ditu eta dorre bat. Hingintzako arrazoiak direla eta, Udalak, HBren abstentzioaz, finka osoa 38 milioitan erostea onartu zuen plenoan. Kaso Zaharraren Plan Bereziaren arduraduna den Galarraga jaunak lurralde hori publiko bihurtzea gomendatu zuen. Segur aski herriarentzako aparka eta pasealekua izango da. Udalak aurtien 15 milioi ordainduko ditu, hurrengo urtean 13 milioi eta 1.991 bukatu baino lehen gainerako 10 milioiak. Seinala ordaindutakoan (1.900.000 pta.) Udaleren

esku gelditu dira etxea eta lurra. Momentu batean aldi baterako Udal Euskarlegia bertan jartzea pentsatu zen baina jende multzo bat sartuz gero bigarren bizitza behera erortzeko arriskua zegoela eta, alde batera utzi zen asmoa.

EAJ UDAL GOBERNUAN

Udal hauteskundeak gertatu zirenetik orain arte oposizioan egon ondoren gobernuan sartzea erabaki eta eskatu du EAJk, gobernuko programa onartunik. Horren ondorioz, hemendik aurrera Udal Gobernu Batzordea honela osatuko da: EAK 3 zinegotzi, EEK 1, PSE-PSOE 1 eta EAJK 1. Bestetik, Mari Karmen Gezala Gizarte Ongizatearen arduraduna izango da eta Migel Tobar Kirol Kontseiluaren presidente. Beraz, hemendik aurrera oposizioko talde bakarra HB izango da. Urriaren 26ko Plenoiari eman zitzaion honen berri.

ETXEBIZITZAK 24B POLIGONOAN

Pleno berean, etxebizitza sozialak egiteko asmoari jarraituz aho batez onartu zuten zinegotziek Udala eta 24B poligonoko jabeen arteko hitzarmena. Poligono hori Puntalean dago. Herri Bertan etxadiaren ondoan. Horretarako erabili den bidea konpentsazioarena izan da, ez espropiazioarena. Horren arabera, jabeek, 60 etxebizitza egiteko lurra gordeko dute berriantzat, eta gainerakoa udalari emango diote dohainik. Urbanizazioa Udala eta jabeen artean egingo dute. Etxebizitzak egiteko epea sei urtekoa izango da, bai jabeentzat, bai Udalarentzat, urbanizazioko proiektua onartzen denetik. Jabeen batek baldintzak beteko ez balitu Udalak bere lurraz desjabetuko luke, eta betetzen ez dituen Udala balitz, jabeak berjabetze eskubideaz baliatu litezke.

ESPAINIAKO GORTEETARAKO HAUTESKUNDEAK

1989. X. 29

	UDALTXEA		KOFRAIDIA		BITERI		MENDELU		GUZTIRA	
EA	282	24%	447	31%	657	28%	280	18%	1.666	25,7%
HB	282	24%	325	23%	564	24%	356	23%	1.527	23,5%
PNV	181	16%	302	21%	391	17%	212	14%	1.086	16,7%
EE	158	14%	158	11%	296	13%	189	12%	801	12,3%
PSOE	148	13%	88	6%	186	8%	315	20%	737	11,3%
PP	43	4%	66	5%	136	6%	86	5%	331	5,1%
CDS	19	2%	15	1%	32	1%	49	3%	115	1,8%
ECOLOG.	16	1%	13	1%	30	1%	18	1%	77	1,2%
IU	9	1%	7	0%	19	1%	33	2%	68	1,0%
RUIZ M.	13	1%	10	1%	9	0%	14	1%	46	0,7%
Besteak	10	1%	8	1%	8	0%	14	1%	40	0,6%
Hau. Botu	1.161	100%	1.439	100%	2.328	100%	1.566	100%	6.494	100,0%
Zuriak	5	0%	8	1%	10	0%	5	0%	28	0,4%
Nulako	3	0%	3	0%	12	1%	10	1%	28	0,4%
Botu Txar.	1.169	65%	1.450	68%	2.350	64%	1.581	59%	6.550	63,5%
Errolda	1.803		2.146		3.679		2.687		10.315	
Abstent.	634	35%	696	32%	1.329	36%	1.106	41%	3.765	36,5%